

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: KULTURA, KIROLA EDO GENERO BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIO ERANTZUKIDERA ZUZENDUTA DAUDEN EKINTZA EDO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN 2024. URTEKO DEIALDIA.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

1.1. Oinarri hauen xedea Beasaingo udalerrian zein udalerritik kanpo, beti ere, beasaindarrentzat interesgarriak izan daitezkeen heinean, kirol, kultura edo genero Berdintasuna sustatzen dituzten ekintzak eta jarduerak garatzeko lotutako jarduera eta ekitaldien garapenean udalerriaren barruko zein kanpoko elkarte, klubak eta herritarren parte hartzea sustatzea da.

1.2. Programa eta jarduera horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta dirulaguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) Elkarrekin eta klubak kasuan, Beasainen izan beharko dute egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorra.
- b) Herritarren kasuan, dirulaguntza eskatzen den momentuan Beasainen erroldatuta egon beharko da.

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.
- b) Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- c) Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskarpenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskarri jarduerak ez eragozteak.
- d) Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).
- e) Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendugastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzara adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.
- f) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Gehienez, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak.

4. Eskararak non eta noiz aurkeztu

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBra bidaliko dira, eta GAOari argitaratu ondoren, eskararak aurkezteko epea hasiko da. Dirulaguntza eskatzeko epea azaroak 28an amaituko da.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako eskaera orrian jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriarekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>.
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean.